



Ba al zenekien....

1. Gure planetan 7 milioi baino gehiago biztanle gaudelarik 6000 eta 7000 hizkuntz ezberdin daude, hauek 189 herrialde ezberdinetan banandurik daude.
2. Europan 225 hizkuntz indigena inguru daude, mundu osoko %3 gutxi gora behera.
3. Munduko hizkuntz gehienak Asian eta Afrikan hitz egiten dira
4. Munduko biztanleriaren erdia baino gehiago elebiduna da eta biztanleri asko eleanitza
5. Egunerokoa, Europarrak atzerriko hizkuntz askorekin egiten dute topo, beraz europako biztanleria hizkuntz hauen inguruko interesa handiagoa izateari bultzatzera animatu behar da
6. Hizkuntza asko 50000 hitzez osaturik daude edo gehiago, baino hizlari bakoitzak egunero elkarrizketetan ehun hitz bakarrik erabiltzen ditu.
7. Hizkuntzek haien artean erlazio handia dutenez beraien artean ere kutsatu egiten dira. Ingelerak adibidez beste hizkuntza askori kutsatu dien bezala, gaur egun europako hizkuntzek ingelerari ere kutsatu diote.
8. Umeka bere aurreneko urtean soinu ezberdin asko sortzen ditu. Urte bat duenean bere lehendabiziko hitz ulerkorak esatera hausartzen da. 3 urte izatean, esaldi konplexuak egitera pasa eta 5 urteren bueltan bere hiztegia asko zabaltzen da.
9. Ama hizkuntza ,normalean, pertsona batek gehien dakien eta erabiltzen duen hizkuntza da. Elebidunak ere badaude, 2 ama hizkuntza menperatzen dutenak, nahiz eta arraroa den bien arteko oreka perfektua menperatzea.
10. Elebiduna izateak abantaila handiak ekartzen ditu: beste hizkuntzen ikasketak egitera laguntzen du, hausnarketa prozesuan, besteeikiko harremanetan eta kultura ezberdinen ezagutzaren prozesuan ere onuragarria da.
11. Elebiduntasuna eta hizkuntza aniztasunak ekonomikoki ere abantaila ekartzen ditu: hizkuntza bat baino gehiago hitzegiten duenak lana aurkitzeko erraztasun handiagoa izanen du eta hizkuntza anitzeko negozioek hizkuntza bakarrekook baino kompetentzi eta arrakasta handiagoa dute.
12. Hizkuntzek, familiako kideak bezalatsu, lotura handia dute. Hizkuntza gehienak indoeuropar hizkuntzekin harreman handia dute.
13. Europako hizkuntza gehienak 3 hizkuntza-multzo ezberdinekin harremana dute: hizkuntza germanikoak, hizkuntza erromatarak eta eslaviar hizkuntzak.
14. Hizkuntza germanikoen famili artean: Daniera, norvegiera, suediera, irlandera, alemana, nederlandera eta ingelesa
15. Erromatar hizkuntzen artean: Italiarra, frantsesa, espainola, portugesa eta errumaniarra daude.
16. Eslaviar hizkuntzen artean: errusiarra, ukrainiarra, bielorrusiarra, poloniarra, txekiarra, slobakiarra, eslovenierara, serbiarra, kroaziarrera, mazedoniarra, bulgariarra daude beste batzuen artean.
17. Europar hizkuntza gehienak alfabeto latindarra erabiltzen dute, eslaviar hizkuntza batzuk berriz alfabeto kyrilikoa. Grekoak, armeniarak, georgiarrak eta azerbaijandarrak beraien alfabetoa dute.
18. Europar herrialde gehienak ere eskualdeko hizkuntzak ere erabiltzen dituzte eta hauetatik batzuk hizkuntza ofizialak izatera lortu dute.
19. Europarrak ez diren hizkuntzak ere erabiltzen dira: arabiarra, txinatarrak eta indiarra ,bakoitzak bere kaligrafia duelarik.
20. Errusian (148 milioi biztanleria duelarik) hizkuntza asko daude, 130-200 hartzen diren irizpideak kontutan harturik.
21. Migratzaileen eta errefuxiatuen ugartasuna dela eta Europa eleanitza bilakatu da. Londresen bakarrik, 300 hizkuntza hitz egiten dira (arabiera, turkiera, kurdua, berberera, hindia, panjabiera etabar).